

2026

Urtarrila - Otsaila
Enero - Febrero



Erakusketak Exposiciones

Musika Música

Antzerkia Teatro

Ipuin-Kontalaria Cuentacuentos

Zinema Cine

Dantza Danza



Atarrabia-Villava
Kultura agendaAgenda cultural



casa de cultura de villava
atarrabiako kultur etxea

- Sarrerak ez dira aldatuko. Ikuskizuna bertan behera uzten bada bakarrik itzuliko da sarreraren zenbatekoa.
- Puntualtasuna guztiz funtsezkoa da. Inor ez da Antzokian sartuko, behin emanaldia hasita.
- Sakelako telefonoak itzali beharko dira areto barnera sartu baino lehen.
- Ez da zilegi argazkiak egitea, filmatzea eta grabatzea.
- Haur eta familiendako ikuskizunetan, 10 urtetik beheko haurrak heldu batekin sartu beharko dira.
- Ez da zilegi aretoan janaria eta edariak sartzea.
- Kultur Etxeko langileek arauok eta Ikuskizun publikoen araudia betearazteko baimena dute.
- Indarrean den araudia betetze aldera, nahitaezkoa da pertsona guztiek beren sarrera izatea, baita heldu baten besoetan doazen umeez ere.
- Las entradas no se cambiarán. La suspensión del espectáculo será la única causa para la devolución del importe de las entradas.
- Máxima puntualidad. No se podrá acceder al Teatro una vez iniciada la función.
- Los móviles deberán desconectarse antes de acceder al interior de la sala.
- Prohibido sacar fotos, filmar y grabar.
- En los espectáculos infantiles y familiares, los menores de 10 años deben ir acompañados de una persona adulta.
- No se permite acceder a la sala con alimentos ni bebidas.
- El personal de la Casa de Cultura está autorizado para hacer cumplir estas normas y la normativa de Espectáculos públicos.
- En cumplimiento de la normativa vigente, es obligatorio que todas las personas dispongan de su propia entrada, incluidos los bebés que vayan en brazos de una persona adulta.

Sarreraren salmenta

Venta de entradas

- Leihatilan, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta sarrerarik gelditzen bada, ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago.
- Interneten:
www.atarrabia.es / www.villava.es
- En taquilla de lunes a viernes, de 16 a 21 horas y media hora antes del comienzo del espectáculo, si quedasen localidades.
- En internet:
www.atarrabia.es / www.villava.es



ESKATU AURIKULARRA
EDO BEGIZTA
MAGNETIKOA
ATEZAINDEGIAN

SOLICITA EL
AURICULAR O EL
BUCLE MAGNÉTICO
EN CONSERJERÍA



www.facebook.com/Casa-de-Cultura-Villava

07

URTARRILA / ENERO

01

OTSAILA / FEBRERO

Argazki-aukera.
Modalitateak: Zuri-
beltzean, Koloretan,
Herriko gaia eta
2025eko jaiak

Selección. Modalida-
des: Blanco y negro,
Color, Tema local y
Fiestas 2025

Ordutegia

18:00 - 21:00 eta
igandeetan, hots,
urtarrilak 11, 18 eta 25
eta otsailak 1, 19:00etatik
20:00etara

Lekua

Kultur Etxeko
erakusketa gela
Sarrera
Dohainik

Horario

18:00 - 21:00 de lunes a
viernes y los domingos
11, 18 y 25 de enero y 1
de febrero de 19:00 a
20:00

Lugar

Sala de Exposiciones de
la Casa de Cultura

Entrada

Gratuita

3

ARGAZKIA
FOTOGRAFÍA

XXX. "Besta Jira" Lehiaketa / XXX Certamen "Besta Jira"



KOLORETAN

1. SARIA /
COLOR
1º PREMIO
"Orígenes"

**Raúl López
Segura**



2025EKO JAIK


1. SARIA /
FIESTAS 2025
1º PREMIO
"Suzko zezena"

**Raúl López
Segura**



HERRIKO GAIA 1. SARIA /
LOCAL 1º PREMIO
"Un lugar de paz"

Abraham Domínguez Ocón



Z/B 1. SARIA / B-N 1º PREMIO
"Mirada perdida"

Rubén Domínguez Ocón

Urtarrila-Otsaila
Enero-Febrero
2026

URTARRILA / ENERO
Iganada / Domingo

11

19:30

Antzokia
Teatro

6 €

75 min

Zuzendaria /

Dirección

Patxi Barco,
Joli Pascualena

Interpreteak /

Intérpretes

Iker Huitzi, Joli
Pascualena, Santi
Romano, Karlos
Nguema

A CAPELA MUSIKA ETA UMOREA
MÚSICA A CAPELA Y HUMOR

“Demode a Kupela”

DEMODE QUARTET

Musika-ikuskizun honetan, ahots taldeak bere musika-estilo as-
kotarikoak emanen ditu maisutasunez, hala nola Argentinako tan-
goa, fadoa, musika zelta, Pakistango punjabia, jazz edota kantu
frantsesa. Interpretazioak funtsean a capela izanen dira, gure fol-
kloreari ere keinu eginda. Hori guztia, ohi denez, umore senez
emanda eta abestiei, herrialdeei eta erreperitorioaren egileei bu-
ruzko teoria harrigarriak azalduta.



Espectáculo musical en el que el grupo vocal despliega con
maestría variados estilos musicales, como el tango argentino, el
fado, la música celta, el punjabi pakistaní, el jazz o la canción
francesa, con interpretaciones principalmente a capela y guiños
a nuestro folklore. Todo ello mezclado con su tradicional sentido
del humor y con sus sorprendentes teorías sobre las canciones,
los países y los autores y autoras del repertorio.

FAMILIENDAKO MUSIKALA
MUSICAL FAMILIARURTARRILA / ENERO
Larunbata / Sábado**17**

“Ez gara azkenak izango”

ADRIANA OLMEDO

Aguas Claras Magia Akademiako ikasturteko lehen eguna da Oihanetako Tribuko hiru gazterentzat. Azkenean, akademian sartzea lortu dute, duela ehunka urtetik hona debekatua eduki baitute tribu horiek akademian sartzea. Baina jende guztia ez dago ados eta etorkizun arriskutsua dute zain. Familiendako magia eta musika ikuskizuna da eta erresistentzia eta ahaleginezko abentura handi bat kontatzen du.

18:00

Antzokia
Teatro

4 €

70 min

Egilea eta zuzendaria /
Autoría y dirección
Adriana Olmedo
Interpreteak /
Interpretes

Nerea Bonito, Edurne
Pena, Xabier Artieda,
Aintzane Baleztena,
Adriana Olmedo

4 urtetik gorako
publiko familiarra /
Público familiar a
partir de 4 años



Es el primer día de curso en la Academia de Magia del Castillo Aguas Claras para tres jóvenes de las Tribus de los Bosques, que acceden por fin a la academia, prohibida para sus tribus desde hace cientos de años. Pero no todo el mundo está de acuerdo y les espera un futuro peligroso. Un espectáculo familiar de magia y música que cuenta una gran aventura de resistencia y superación.

ESTREINALDIA
EUSKARAZ
ESTRENO
EN EUSKERA

URTARRILA / ENERO
Igandea / Domingo

18

19:30

Antzokia
Teatro

8 €

80 min

**Testugilea /
Autoría del texto**

Yllana, Primal
Brothers

**Zuzendaria /
Dirección**

Joe O'Curneen

**Interpreteak /
Intérpretes**

Íñigo García Sánchez,
Pedro Herrero,
Adri Soto, Manu Pilas

KEINU KOMEDIA ETA A CAPELA AHOTSAK
COMEDIA GESTUAL Y VOCES A CAPELA

"Madness"

YLLANA

Antzerki arloko esperientzia paregabe, basati eta harrigarria da. Keinu komedia aparta, a capela ahots txundigarriekin emana. Psikiatriko bat, lau paziente. Istorio eroa, umorea, kritika, ahots birtuosismoa eta une guztiz zentzugabeak...



baina bikainak! "Madness" bidaia bat da zoramen dibertigarrienera; eszenaratzea zorrotza, originala eta erabat adikti-boa da.

Una experiencia teatral única, salvaje y sorprendente. Comedia gestual explosiva con voces a capela impactantes. Un psiquiatra,

cuatro pacientes. Una historia disparatada que mezcla humor, crítica, virtuosismo vocal y momentos absolutamente absurdos... ¡ipero brillantes! "Madness" es un viaje a la locura más divertida, con una puesta en escena afilada, original y absolutamente adictiva.

ZINE-FORUMA EMAKUMEA
CINE-FÓRUM MUJER

"The lady in the van"

NICHOLAS HYTNER

URTARRILA / ENERO
Asteazkena / Miércoles**21**

19:00

Antzokia
TeatroSarrera libre
Entrada libre

104 min

Urtea / Año 2015

Zuzendaritza /

Dirección

Nicholas Hytner

Nazionalitatea /

Nacionalidad

EB / UK

Jende

guztirendako

egokia / Apta para
todos los públicos

Shepherd andereñoak sekretuak ditu eta Londresko espaloi batean aparkatu du furgoneta, Alan Bennett idazlearen etxeko sarre-
ran, hain zuzen. Hasieran, aldi baterako aparkaldia iduri zuen, bai-
na azkenean auzoko bizitza bera eraldatuko duen aparkaldi luzea
izanen da. Aukera ederra Maggie Smith aktore hil berria omen-
tzeko eta zahartzaroaz hausnartzeko.

*María Castejón*ek koordinatua, *Historian doktorea, idazlea eta
blogaria. Aditua genero-irudikapenetan, ikus-entzunezkoetan.*



La señorita Shepherd, una mujer con secretos, aparca su furgoneta en una acera de Londres, en el acceso a la casa del escritor Alan Bennett. Lo que en un principio parecía ser un aparcamiento temporal, terminará convirtiéndose en una larga temporada de transformará la vida del barrio. Una ocasión para homenajear a la recientemente fallecida actriz Maggie Smith y para reflexionar sobre la vejez.

*Coordinado por María Castejón, doctora en Historia, escritora y
bloguera. Especialista en representaciones de género en los
medios audiovisuales.*

URTARRILA / ENERO
Larunbata / Sábado

24

18:00

Antzokia
Teatro

3 €

60 min

**Zuzendaria /
Dirección**

Miquel Crespi

Testugilea /

Autoría del texto

Joana Rheingantz,

Miquel Crespi

Interpretea /

Intérprete

Joana Rheingantz


**Familia eta 4-10
urtekoentzat /
Público familiar de
4 a 10 años**

MAGIA, ANTZERKIA, TXOTXONGOLOAK, MUSIKA ETA MUGIMENDUA
MAGIA, TEATRO, TÍTERES, MÚSICA Y MOVIMIENTO

“Hai, la pescadora de sueños”

GIRAMAGIC

Ipuin indigena da, magia, antzerkia, txotxongoiloak, ikusizko poesia, musika eta mugimendua uztartuz eta material birziklatuak erabiliz kontatua. Musika, gainera, jatorrizkoa da eta arras leku garrantzitsua du. Ikuskizun irekia, partaidetzan oinarritua, haurren emozioak azalerazteko. Irudimenez jokatzera gonbidatu nahi ditu ikusleak, eta pentsatzera deus ez dagoela ez ongi, ez gaizki. Adin guztietako jendearentzat.



Cuento indígena narrado desde la magia, teatro, títeres, poesía visual, música y movimiento, a partir de materiales reciclados y con música original. Un espectáculo participativo que interpela las emociones de las niñas y los niños. Invita a que la imaginación esté presente y no haya nada ni bien ni mal. Una propuesta para todos los públicos en el que la música tiene una presencia muy importante.

GOGOETA
REFLEXIÓN

“Paciencia para percibir todo como un espejismo”

ION IRAIZOZ

Omenaldia da begiratzearen plazerari, axola diguten gauzez mintzatzeko aitzakia, hala nola adiskidantaz, lan prekaritateaz edota inguratzen gaituen indarkeriaz. Fake biodrama bat, fake doku-mental bat. Manifestu politiko bat. Maitasunari buruzko lan neo-liberala: prekarioa, samurra eta hauskorra. Lanak ez du fikzioa izan nahi. Auzokide bilera bat. Topaketa publikoarekin, edo ondo-rondo kaña.



Esta obra es un homenaje al placer de mirar, un pretexto para hablar de cosas que nos importan, como la amistad, la precariedad laboral o la violencia que nos rodea. Un biodrama fake, un documental fake. Un manifiesto político. Una obra neoliberal sobre el amor: precaria, tierna y frágil. Una obra que no pretende ser ficción. Una reunión de vecinos. Un encuentro con el público o la caña de después.

URTARRILA / ENERO
Ilgandea / Domingo**25**

19:30

Antzokia
Teatro

6 € leihatilan,
taquilla
5 € interneten
internet

75 min

Zuzendaria /
Dirección
Ion Iraizoz
Testugilea /
Autoría del texto
Gloria March,
Ion Iraizoz
Interpreteak /
Intérpretes
Ion Iraizoz

Ikusleak
eszenatokian
jarriko dira, baina
inola ere ez da
haien parte-hartzea
eskatuko /
El público estará
dispuesto sobre el
escenario, aunque
en ningún caso se
pedirá su
participación

18:00

Kultur Etxeko
8. gela

Sala 8 de la Casa
de Cultura

Dohainik

gonbidapena saioa
hasi baino 10 minutu
lehenago hartu
behar da

Entrada libre

previa recogida de
invitación 10 minutos
antes de la función

Publikoa / Público

4 urtetik aurrera
A partir de 4 años

URTARRILA / ENERO
Asteartea / Martes

27

GAZTELANIAZ
CASTELLANO

“En los bolsillos del abrigo rojo”

BIRJIÑE ALBIRA



URTARRILA / ENERO
Osteguna / Jueves

29

EUSKARAZ
EUSKERA

“Hainbat ipuin”

JAIONE URTASUN



KOMEDIA
COMEDIA

"Escape Room"

TXALO

EUSKARAZ
EUSKERA

OTSAILA / FEBRERO
Igandea / Domingo

01

Hautzarotik lagunak diren bi bikotek hitzordu bat jarri dute elkarrekin escape room bat bisitatzeko. Escape rooma dagoen auzoan, gizon baten gorpua agertu berri da zatikaturik edukiontzi batean... Lau lagunek jolas atsegin eta dibertigarria aurkitzea espero dute, beren adimena probatzeko eta barre egiteko. Aldiz, gelan sartu eta atea hermetikoki ixten den unean bertan, atzera-kontua hasiko da: gauza bitxiak pasatzen hasiko dira. Ihes-gelatik ateratzea ez da ez erraza izanen, eta minutuak joan, minutuak etorri, jolasa

bene-benetako infernu bat bilakatuko da, lau lagunaren arteko adiskidetasuna kinkan jartzeraino. Baina kasu! Ez dirudien arren, hau komedia bat da... beldurrezko komedia bat!



Dos parejas de amigos de toda la vida quedan en un Escape Room de un barrio en el que recientemente se ha encontrado

el cadáver de un hombre descuartizado en un contenedor. Piensan que les espera un juego divertido para pasar el rato, poner a prueba su inteligencia y reír un poco. Pero en cuanto la puerta se cierra herméticamente y empieza la cuenta atrás, empiezan a pasar cosas extrañas. Salir no será nada fácil. Con el paso de los minutos, el juego se convertirá en un infierno que pondrá a prueba su amistad hasta límites insospechados. Pero, ¡atención!, aunque no lo parezca esto es una comedia... ¡una comedia de miedo!

19:30

Antzokia / Teatro

6 €

5 € socios de
Karrikaluze y
alumnado IKA

90 min

**Zuzendaria /
Dirección**

Begoña Bilbao

**Interpreteak /
Intérpretes**

Zuhaitz Gurrutxaga,
Nerea Gorriti, Oihana
Maritorea, Iñigo
Aranburu

05

OTSAILA / FEBRERO

08

MARTXOA / MARZO

ARGAZKIA
FOTOGRAFÍA

Salidas culturales de Villava (2005-2023) PILAR IZQUIERDO JIMÉNEZ

Kultur Etxeko
erakusketa gela
.....
Sala de
exposiciones
Casa de Cultura

Ordutegia

Astelehenetik
ostiralera, 18:00etatik
21:00etara eta otsailak
8, 15 eta 22, eta
marxoak 1 eta 8,
19:00etatik 20:00etara

Sarrera Dohainik

Horario

Lunes a viernes, de
18:00 a 21:00,
y 8, 15 y 22 de febrero
y 1 y 8 de marzo, de
19:00 a 20:00

Entrada Gratuita

Kultura Zerbitzuak azken urteotan antolatu dituen kultur ateraldien bidez, hamaika leku ikusi ditugu (aztarnategiak, museoak, katedralak, alde zaharrak...). Pilar Izquierdo bizilaguna Foto 67-M tailerreko kidea da eta 2005ean hasi zen ateraldietan parte hartzen. Argazkiak egin ditu eta horietako batzuk atzera begirako honetan jarri ditu ikusgai, begirada arkitekturan eta arte ondarean pausatuta. Horra ateraldietan parte hartu zuten pertsonei zirrara eraginen dien bidaia.



El Servicio de Cultura organiza desde hace años salidas culturales que han permitido visitar decenas de lugares (yacimientos, museos, catedrales, cascos históricos...). La vecina Pilar Izquierdo, miembro del taller Foto 67-M, se incorporó a ellos en 2005 y en esta retrospectiva muestra las imágenes que ha venido tomando, poniendo el foco en la arquitectura y el patrimonio artístico. Todo un viaje emocional para las personas que participaron en las salidas.



OBJEKTUEN ANTZERKIA
TEATRO DE OBJETOS

ESTREINALDIA
ESTRENO

OTSAILA / FEBRERO
Larunbata / Sábado

07

“Hebras-Hariak”

PÁJAROS PINTADOS

Hari solteen eta oihal koloregabeen artean, gizon zahar batek ikusten du nola ari zaion oroimena desagiten. Oroitzapen bakoitza haizean galdutako harizpi hauskor bat da, eta gizona huraxe saiatzen da berreskuratzen bere bizitzako ehuna iruteko. Lanak bakardadea du aztergai ikuspegi poetiko batetik, objektu antzerkia erabiliz ehu-

nei eta jantziei bizia emateko, gizakien memoriaren, denbora-
ren eta loturen metafora gisa.



Entre hilos sueltos y telas descoloridas, un anciano observa cómo su memoria comienza a deshacerse. Cada recuerdo es una hebra frágil, perdida en el viento, que

él intenta recuperar para hilar el tapiz de su vida. Esta propuesta escénica explora la soledad desde una perspectiva poética, utilizando el teatro de objetos para dar vida a textiles y prendas como metáforas de la memoria, el tiempo y las conexiones humanas.

17:00

GAZTELANIAZ
CASTELLANO

18:30

EUSKARAZ
EUSKERA

Antzokia
Teatro

4 €

50 min

Egilea / Autoría

Victoria Musetti

Zuzendaritza /

Dirección

Rosa Díaz

Interpreteak /

Intérpretes

Manuela Orbegozo,

Sergio Gayol

6 urtetik gorako

público familiarra /

**Público familiar a
partir de 6 años**

OTSAILA / FEBRERO
Igandea / Domingo

08

19:30

Antzokia
Teatro

5 €

Jatorrizko ideia eta zuzendaritza / Idea original y dirección

Jabier Leoz Aristu

Interpretea / Intérprete

Tere Sarriguren

Ahotsak / Voces

Maitane Urbizu, Julen

Lezaun, Jabier Leoz

Biolina / Violín

Julen Lezaun

Gitarra / Guitarra

Cecilia Moreno

Biolontxelo /

Violonchelo

Eñaut Zubizarreta

Txalaparta

Sergio Lamuedra,

Jabier Leoz

FOLK FUSIOA
FOLK FUSIÓN

“Bidea badoa”

MUGARRI

EUSKARAZ
EUSKERA

Ikuskizunak musika tradizionala, ahotsak eta txalaparta ekarriko dizkigu eta, horrekin batera, biolinaren, biolontxeloaren eta gitarra zirraren zirrara, den-dena ederki uztarturik. Narrazio hari sendo batetik tiraka, Mugarri mugaldean sortutako istorietara eramane gaitu, hau da, gure ondare immaterialean sarturik dauden kontakizunetara, belaunaldi belaunaldi irakatsitakoak. Soinuz soinu, zirrarez zirrara, bidaiak gure oroimen kolektiboarekin lotuko gaitu, bai eta mundu zabaleko hainbeste mugatan gertatzen diren dramekin ere.



Espectáculo que fusiona la música tradicional, voces y txalaparta, con la emoción del violín, violonchelo y guitarra. Con un potente hilo narrativo, Mugarri nos transporta a las historias que nacieron en la muga, relatos transmitidos de generación en generación que forman parte de nuestro patrimonio inmaterial. Un viaje sonoro y emocional que nos conecta con nuestra memoria colectiva y con los dramas que aún se viven en tantas fronteras del mundo.

HERRIKO ROCKA EUSKARAZ
ROCK LOCAL EN EUSKERAOTSAILA / FEBRERO
Ostirala / Viernes**13**

Yabalia Rock Taldea

EUSKARAZ
EUSKERA

Pozik esan nahiko genuke Yabalia Rock Taldea sortu zela proiektzio handiko musikari gazte talde baten topaketatik. Ez da horrela, ordea. Taldea joan den hamarkadaren erdian sortu zen Atarrabian, eta ikastolako guraso batzuen topaketa informalaren fruitua da, hantxe elkartzen baitziren beren instrumentuak gaizki tratatzeko eta beste talde batzuen kantuak egokitzeko. Gero, denborarekin, eta taldea gutxi gorabehera egonkortu zenean, bertsioen lehen kontzertuak iritsi ziren lagun eta senideen aurrean, bai eta handik igarotzen zen despistaturen baten aurrean ere. Eta geroago, abesti originalak iritsi ziren, guztiak ere Aitor baxu-jotzaileak onduak, behar bezalakako ins-

pirazioa baitu gure lehen lana, "Hil Arte Bizi", osatzen duten gai guztiak konposatzeko.



Nos encantaría decir que Yabalia Rock Taldea nace del encuentro de un grupo de jóve-

nes músicos con una gran proyección. Pero no es así. El grupo nació a mediados de la década pasada en Villava y es fruto del encuentro informal de unos aitas de la ikastola que se juntaban para maltratar sus instrumentos y a adaptar canciones de otros grupos. Con el tiempo, y ya con una formación más o menos estable, llegaron los primeros conciertos de versiones ante amigos y familiares y algún/a despistada que pasa por allí. Y más tarde, canciones originales compuestas por el bajista, Aitor, que da con la inspiración necesaria para componer todos los temas que conforman nuestro primer trabajo, "Hil Arte Bizi".

20:00

Antzokia
Teatro

4 €

80 min

**Interpreteak /
Intérpretes**

Aitor Olaetxea (baxua / bajo); Koldo Velasco, Borja Colomina (gitarra / guitarra); Edu Martínez (ahotsa / voz); Mikel Oteiza, (bateria / batería); Maitane Uranga (koruak / coros)

**Soinu teknikaria /
Técnico de sonido**

Meri Jimeno

OTSAILA / FEBRERO
Igandea / Domingo

15

DRAMA
DRAMA

"52 Hercios"

ADOS TEATROA

19:30

Antzokia / Teatro

6 €

90 min

Testugilea /

Autoría del texto

Garbi Losada,
Jose Antonio Vitoria

Musikagilea /

Autoría de la música

Javier Asín

Zuzendaria /

Dirección

Garbi Losada

Interpreteak /

Intérpretes

Joseba Apaolaza,
Dorleta Urretabizkaia /
Ainhoa Aierbe,
Martxelo Rubio, Amaia
Irazabal, Aitzol Iraola



Dicen que hay una ballena que nada sola por el océano, emitiendo una frecuencia que no escuchan las otras ballenas. A partir de esta imagen poética, 52 hercios nos habla del aislamiento social, de la incomunicación, la diferencia y el deseo de ser escuchada. Con humor, emoción y una cuidada puesta en escena, la obra nos invita a afinar el oído y el corazón.

ZINE-FORUMA EMAKUMEA
CINE-FÓRUM MUJEROTSAILA / FEBRERO
Asteazkena / Miércoles**18**

“Pequeñas cartas indiscretas”

THEA SHARROCK

19:00

Antzokia
TeatroSarrera librea
Entrada libre

102 min

Urtea / Año 2023

Zuzendaritza /

Dirección

Thea Sharrock

Nazionalitatea /

Nacionalidad

EB / UK

Ez da

gomendagarria

16 urtetik

beherakoentzat /

No recomendada a

menores de 16 años

20eko hamarkada. Kostaldeko Littlehampton hirian, Edith Swan lizunkoi eta herriko beste biztanle batzuk hizkera bitxiz eta lizunez idatzitako gutun eskandalagarriak hasten dira jasotzen. Jendeak susmatzen du Rose Gooding dela gutun egilea, hau da, bizilagun lizun bat. Akusazioen ondorioz, arriskuan egonen da Roseren askatasuna eta alabaren zaintza. Gladys Moss poliziak ohi duen asmamenez jokatu du misterioa argitzeko.

*María Castejón*ek koordinatua, *Historian doktorea, idazlea eta blogaria*. Aitua *genero-irudikapenetan, ikus-entzunezkoetan*.



Años 20. En la ciudad costera de Littlehampton, la devota Edith Swan y otros habitantes de la localidad empiezan a recibir escandalosas cartas escritas con un lenguaje excéntrico y obsceno. Las sospechas recaen sobre Rose Gooding, una vecina disoluta que ve cómo su libertad y la custodia de su hija peligran debido a las acusaciones. La agente de policía Gladys Moss pondrá su ingenio a trabajar para resolver el misterio.

Coordinado por María Castejón, doctora en Historia, escritora y bloguera. Especialista en representaciones de género en los medios audiovisuales.

OTSAILA / FEBRERO
Ostirala / Viernes

20

20:00

Antzokia
Teatro

6 € leihatilan,
taquilla
5 € interneten
internet

The Stomps
taldeko kideak /
Componentes de
The Stomps

Matteo Magnaterra
(baxua / bajo), Elia
Squartini (bateria /
batería) y Rishi Rest
Mensur (teklatuak /
teclados).

BLUES-ROCK
BLUES-ROCK

Matt Pascale & The Stomps

Matt Pascale kantari, gitarrista eta konpositore italiarra da, Blues-Rockaren promesarik handienentzat joa, Europa osoan. Amerikar sustraiko musikaren barnean garatu du bere soinu, barne direla southern rocka, blues zingiratsua eta funky-neo soul-a, eta hard rocka ere ferekatuta. Eraitza, bikaina da benetan. 25 urte baditu ere, jaialdi ospetsuetan parte hartu du, hala nola Notodden Blues Festival eta Thrill Blues Festival jaialdietan.




Matt Pascale es un cantante, guitarrista y compositor italiano considerado una de las mayores promesas del Blues-Rock a nivel europeo. Su sonido se ha desarrollado entre la música de raíces americanas, incluyendo el southern rock, el blues pantanoso y el funky-neo soul acariciando el hard rock en fusión de brillante resultado. A pesar de sus 25 años, ha participado en festivales de renombre como el Notodden Blues Festival y el Thrill Blues Festival.

ABENTURA
AVENTURA

"AMARES, Amar los mares"

PRODUCCIONES MAESTRAS

Neguko ekaitz-gau batean, Pepa The bottle pirata zaharrarekin topo egin genuen, eta bost kontinenteetan barrena egindako ibilaldi luzeak gogoratu genituen. "El Ulises" itsasontzian bizitako iragan bateko abenturak eta zorigaitzak bizi araziko dizkigu. Peparekin gogoratuko dugu nola iritsi zen Japoniara, nola defendatu zituen animaliak Lagosen, nola bidaiatu zuen Yemayák kulunkatutako olatuen gainean, nola dantzatu zen Ozeanian edo nola, zaharturik eta atsoturik, itzuli zen bera jaiotzen ikusi zuten Eskoziara itsas labarretara.



En una tormentosa noche de invierno nos encontramos a la vieja pirata Pepa The bottle recordando sus largas travesías por los cinco continentes. Nos hará vivir las aventuras y desventuras de un pasado a bordo de su barco "El Ulises": cómo llegó a Japón, cómo defendió a los animales en Lagos, cómo viajó sobre las olas mecidas por Yemayá, cómo bailó en Oceanía o cómo, ya de vieja y revieja, volvió a los acantilados escoceses que la vieron nacer.

OTSAILA / FEBRERO
Larunbata / Sábado

21

17:00

GAZTELANIAZ
CASTELLANO

18:30

EUSKARAZ
EUSKERA

Antzokia
Teatro

4 €

50 min

**Dramaturgia eta
zuzendaria /
Dramaturgia y
dirección**

Ana Maestrojuán

**Interpreteak /
Intérpretes**

Jaione Urtasun,
Ángel García Moneo,
Xabier Artieda

4 - 99 urteko

txoentzat /

**Para grumetes de 4
a 99 años**

OTSAILA / FEBRERO
Ilganda / Domingo

22

19:30

Antzokia / Teatro

6 €

70 min

**Zuzendaritza eta
koreografia /
Dirección y
coreografía**

Víctor Jiménez

**Dantza kidegoa /
Cuerpo de baile**Mattia Furlan, Elena
Gil, Paula Rodríguez,
David Serrano, Alain
Rivero, Imanol López,
Jimena Martínez,
Paula Aragón**Solasaldia
antzezleekin,
emanaldiaren
ondoren / Coloquio
con el elenco
artístico tras la
función**DANTZA GARAIKIDEA
CONTEMPORÁNEA

“El Lago”

LAMOV CÍA DE DANZA

Sentiberatasun liluragarritz jokaturik (hori LaMov-en hizkera urra-tzailearen ezaugarria baita), Jimenezek Errusiako balletaren para-digma berrikusi du, erritmoak, mugimenduak eta argi-arkitekturak ikertuz eta esperimentatuz. Lan klasikoaren hari narratibotik urrun, imajinatutako laku honetan, azala eta denok daramatzagun geruza sakonenak miatzen dira, bai eta itxuraren eta benetako niaren dual-tasuna ere, eta miatu ere gizartea, beltxarga zurien ingurune lasaia balitz bezala, zeinean beltxarga beltza matxinatu egiten baita eta itxurakeriak erantzten baititu egiara eta askatasunera iristeko. Ori-ginaltasun handiko ikuskizuna da, ahalegin fisikoa, plastikoa eta interpretaziozkoa agerian utzita.



Con su cautivadora sensibilidad, seña de identidad del lenguaje transgresor de LaMov, Jiménez revisa el paradigma del ballet ruso desde la investigación y experimentación de ritmos, movimientos y arquitecturas de luz. Lejos del hilo narrativo del clásico, en este lago imaginado se abunda en la superficie y en las capas más profundas que todos portamos, en la dualidad de la apariencia y del yo auténtico, en la sociedad como un supuesto remanso de cisnes blancos en el que el cisne negro se rebela desnudándose de apariencias para llegar a la verdad, y a la libertad. Espectáculo de gran originalidad y superación física, plástica e interpretativa.

OTSAILA / FEBRERO
Asteartea / Martes

24

GAZTELANIAZ
CASTELLANO

“Lobeando cuentos”

SERGIO SALINAS



18:00

Kultur Etxeko
8. gela

Sala 8 de la Casa
de Cultura

Dohainik

gonbidapena saioa
hasi baino 10 minutu
lehenago hartu
behar da

Entrada libre
previa recogida de
invitación 10 minutos
antes de la función

Publikoa / Público
4 urtetik aurrera /
A partir de 4 años

OTSAILA / FEBRERO
Osteguna / Jueves

26

EUSKARAZ
EUSKERA

“Koloretako ipuinak”

SERGIO DE ANDRÉS



MARTXOA / MARZO
Igandea / Domingo

01

MUSIKA KORALA
MÚSICA CORAL

Paz de Ziganda Helduen Abesbatza lagunekin - PDZHA & Amig@s

19:00

Antzokia
Teatro

5 €

75 min

Zuzendaritza /

Dirección

Mari Paz Arizkun

Paz de Ziganda Helduen Abesbatzak amaiera bikaina emanen dio bere XV. urtemugaren ospakizunari, kontzertu berezia eskainiko baitu, hainbat artistarekin batera, bai eta taldeak hasieratik izan dituen zuzendari guztiekin batera ere. Guztiak ere abesbatzarekin arituko dira, adiskidantzak eta maitasunak bultzaturik, eta musika maite dutelako. Hitzordu zoragarria izanen da, zirraraz eta sorpresaz betea, hamabost urtean egindako lana, ilusioa eta elkarrekin hazi diren ahotsak goatzeko eta ospatzeko. Kontzertua, zalantzarik gabe, gogoangarria izanen da.



Paz de Ziganda Helduen Abesbatza pone el broche final a la celebración de su XV Aniversario con un concierto muy especial que reunirá a diferentes artistas, así como a directoras y directores de coro que han acompañado a esta agrupación a lo largo de su trayectoria. Todos ellos se unirán a la coral movidos por el cariño, la amistad y, sobre todo, por el amor compartido por la música. Será una cita inolvidable, llena de emociones y sorpresas, pensada para disfrutar y celebrar quince años de trabajo, ilusión y voces que han crecido juntas. Un concierto que, sin duda, no dejará a nadie indiferente.

Kultur Etxea Atarrabiako Udalaren hurbileko kultur ekipamendua da eta herritargo kulturala eraikitzea du xede, bai arte prozesuen bidez, bai ekintza soziokulturalaren bidez, betiere kultur eragilean, taldeen eta herritarren arteko elkarlanean eta partaidetzan oinarriturik.

Hona hemen zer eskaintzen duen Kultur Etxeak:

- Kultura zabaltzeko programak (arte eszenikoak, musika, arte plastikoak, liburutegia, eta irakurzaletasuna bultzatzeko ekimena, zinema eta ikus-entzunezkoak, hitzaldiak...).
- Leku prestatuak arte jarduerak egiteko, taldeentzat nahiz artistentzat.
- Lanerako tokiak herriko elkarte eta taldeen saio komunitarioetarako.

Kultur Etxea honela osatua dago:

- Espazio eszenikoan 290 lagun sartzen dira.
- Erakusketa gela bat.
- Hainbat erabileratarako sei gela.
- Plastika gela bi (helduentzat eta haurrentzat).
- Antzerki-dantzarako gela bat.
- Hiru musika gela.
- **Liburutegian** badira bi irakurketa gela (helduentzat eta haurrentzat). Bestalde, bibliografia-funts zabala dauka eskura, eta zerbitzu aunitz eskaintzen ditu.

Jaso nahi duzu kultur agenda posta elektronikoz? Idatz iezaguzu: cultura@villava.es

PROTECCIÓN DE DATOS

Arduraduna: Atarrabiako Udal.

Xedea: Kultura Zerbitzuko informazioa bidaltzea.

Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzea, eta tratamenduari kontra egitea, Kultur Etxeko atezaindegira edo dpd@villava.es helbidera joz. Informazio gehigarria: pribatutasun politikaren atalean, www.villava.es

Kultur Etxeko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:30era eta 15:00etatik 21:30era

Harremana: 948 332659 // cultura@villava.es

La **Casa de Cultura** es el equipamiento cultural de proximidad del **Ayuntamiento de Villava** cuya finalidad es construir ciudadanía cultural a través de los procesos artísticos y la acción sociocultural, en un entorno colaborativo y participativo de agentes culturales, colectivos y ciudadanía.

La Casa de Cultura ofrece:

- Programas de difusión cultural (artes escénicas, música, artes plásticas, biblioteca y animación a la lectura, cine y audiovisual, conferencias...).
- Espacios especializados para la práctica artística a entidades y artistas.
- Espacios de trabajo para las actuaciones comunitarias de asociaciones y colectivos locales.

La Casa de Cultura cuenta con:

- Un espacio escénico de 290 localidades.
- Una sala de exposiciones.
- Seis salas polivalentes.
- Dos aulas de artes plásticas (adultos e infantil).
- Un aula de teatro-danza.
- Tres salas para ensayos musicales.
- Una **Biblioteca** con dos salas de lectura (adultos e infantil) y ofrece un amplio fondo bibliográfico y múltiples servicios.

¿Quieres recibir la agenda cultural por correo electrónico? Escribe a cultura@villava.es

PROTECCIÓN DE DATOS

Responsable: Ayuntamiento de Villava.

Finalidad: Remitir información del Servicio de Cultura.

Derechos: acceder, rectificar, suprimir los datos y oponerse al tratamiento dirigiéndose a Conserjería de la Casa de Cultura o a dpd@villava.es
Información adicional: en el apartado de política de privacidad en www.villava.es

Horario de la Casa de Cultura: de lunes a viernes, de 9 a 14:30 y de 15 a 21:30

Contacto: 948 332659 // cultura@villava.es

Urtarrila / Enero

A A A O O L I
L M M J V S D

1 2 3 4
5 6 7 8 9 10 11
12 13 14 15 16 17 18
19 20 21 22 23 24 25
26 27 28 29 30 31

- 07 urtarrila/enero -
01 otsaila / febrero
Erakusketa / Exposición
XXX. "Besta Jira" Lehiaketa /
XXX Certamen "Besta Jira"
11 **Musika / Música**
Demode Quartet
17 **Familiendako musikala /**
Musical familiar Ez gara
azkenak izango Adriana Olmedo
18 **Antzerkia / Teatro**
Madness Yllana
21 **Zine-foruma Emakumea / Cine**
fórum Mujer The lady in the
van Nicholas Hytner

- 24 **Antzerkia / Teatro**
Hai, la pescadora de sueños
Giramagic
25 **Antzerkia / Teatro Paciencia**
para percibir todo como un
espejismo Compañía Ion Iraizoz
27 **Ipuin-kontalaria / Cuentacuentos**
Birjiñe Albira (gaztelaniaz /
castellano)
29 **Ipuin-kontalaria / Cuentacuentos**
Jaione Urtasun (euskaraz /
euskera)

Otsaila / Febrero

A A A O O L I
L M M J V S D

1
2 3 4 5 6 7 8
9 10 11 12 13 14 15
16 17 18 19 20 21 22
23 24 25 26 27 28

- 05 otsaila / febrero -
01 martxoa / marzo
Erakusketa / Exposición
Atarrabiako kultur ateraldiak
(2005-2023) / Salidas
culturales de Villava (2005-
2023) Pilar Izquierdo Jiménez
01 **Antzerkia / Teatro**
Escape Room Txalo
07 **Antzerkia / Teatro**
Hebras-Hariak
Pájaros Pintados
08 **Musika / Música Bidea badoa**
Mugarri
13 **Musika / Música**
Yabalia Rock Taldea

- 15 **Antzerkia / Teatro**
52 Hercios Ados Teatroa
18 **Zine-foruma Emakumea / Cine**
fórum Mujer Pequeñas cartas
indiscretas Thea Sharrock
20 **Musika / Música** Matt Pascale &
The Stomps
21 **Antzerkia / Teatro**
Amares, Amar los mares
Producciones Maestras
22 **Dantza / Danza**
El Lago LaMov cía de Danza
24 **Ipuin-kontalaria / Cuentacuentos**
Sergio Salinas (gaztelaniaz /
castellano)
26 **Ipuin-kontalaria / Cuentacuentos**
Sergio de Andrés (euskaraz /
euskera)

Martxoa / Marzo

A A A O O L I
L M M J V S D

1

- 01 **Musika / Música**
Paz de Ziganda Helduen
Abesbatza lagunekin -
PDZHA & Amig@s

ANTOLATZAILEA / ORGANIZA



ELKARTUTAKO GUNEA / ESPACIO ASOCIADO



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA
RED DE TEATROS
DE NAVARRA



Nafarroako
Gobernua

LAGUNTZAILEA / COLABORA